

## IKASTAROKO ARAUTEGIA:

### 1.- Ikastaroetan izen-ematea

Izena emateko orria bete beharko da Udal Kiroldagiko bulegoan edo webgune bidez.

Ikastaroa aurrera atera ahal izateko, gutxieneko kopurua beharko da. Izena eman dutenak dauden plazak baino gehiago badira, zozketa bidez esleituko dira plaza horiek. Plazarik gabe geratzen denak aukera izango du beste talde batean izena emateko, betiere taldea osatu arte eta izena emateko hurrenkerari jarraituz.

Hiruhileko diren ikastaroetan izen emateko garaian, ikasle berriek izango dute lehentasuna.

### Taldeak osatzeko gutxieneko eta gehieneko erabiltzaile kopurua

- Fitness aretoan egiten diren jarduerak

Aerobika-multifitnessa: 14/20; Pilatesa: 8/12; Indoor Walking: 8/14; Ciclo indoor: 14/20; Multifitnessa: 14/20; Konbinatua: 8/14; Karatea: 14/20; Zunba: 14/20; Zirkuitu entrenamendua 8/14; Multijarduera: 8/14; Korea + luzaketak: 8/14; Korea: 8/12; Hipopresiboak: 8/12; Hipopresiboak + luzaketak erditu ondorengo emakumeentzat: 8/8

- Uretan egiten diren jarduerak

Haurtxoak: 6/10; Haurdunak: 1/8; 3 urte: 5/5-10; 4 urte: 5/5-12; 5-6 urte: 9/10; 7-8 urte: 9/12; 9-16 urte: 9/14; Aquagyma: 12/14; Mantentze igeriketa maila altua eta ertaina: 12/18; Mantentze igeriketa maila baxua: 12/16; Hastapena helduak: 9/14; 55etik gorakoentzat: 12/14; 65etik gorakoentzako aquagyma: 12/12; 65etik gorakoentzako hastapena: 9/12 Egokitua: talde motaren arabera, según grupo; Osasuna hobetu: 6/6-8.

### 2.- Kuotak eta ordainketa modua:

Ikastaroen kuotak urtero Udal Osoko Bilkuran onartutako tasak izango dira.

Ikastaroetan izen ematea era honetara ordaindu behar da:

### Hilabeteko ikastaroak:

Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldegiko bulegoetan aurkeztu behar dira (e-maila: [kirola@hernani.eus](mailto:kirola@hernani.eus)). Ordainketak txartelarekin eta helbideratu egin daitezke.

### Iraupen luzeko ikastaroak:

- **Hiru hilabeteko ikastaroak:**

**Ordainketa bakarra:** Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldegiko bulegoetan aurkeztu behar dira (e-maila : [kirola@hernani.eus](mailto:kirola@hernani.eus)). Ordainketak txartelarekin ere egin daitezke.

**Zatikako ordainketa:** Ordainketa aurrezki kutxa edo banketxeren batean helbideratu beharko da eta ikastaroari dagokion kuota hiru zatitan ordainduko da, zati bakoitzean hilabete bati dagokion kopurua.

- **Gainerako ikastaroak (urria-ekaina):**

Iraupen luzeko ikastaroen kuotak modu hauetan ordain daitezke:

**Ordainketa bakarra:** Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldegiko bulegoetan aurkeztu behar dira (e-maila : [kirola@hernani.eus](mailto:kirola@hernani.eus)). Ordainketak txartelarekin ere egin daitezke.

Izena behin jarduera hasita ematen denean. dagokion parte proportzionala ordainduko da, altaren dataren arabera. Lehen hilabeteko kuota kalkulatzeko, hilabete osotzat hartuko dira 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erditzat 16tik 31ra egindakoak.

**Zatikako ordainketa:** Ikastaro guztietarako, oro har, ikastaroen ordainketak aurrezki kutxa edo banketxeren batean helbideratu beharko dira, eta ikastaroak irauten duen hilabete kopuruaren adinako zatitan ordainduko dira kuotak. Inskripzioa jarduera dagoeneko hasita dagoela egiten bada, lehen kuota gisa ordaindu beharreko kopurua alta-egunaren arabera finkatuko da, honela: hilaren 1etik 15era egindako inskripzioak hilabete osotzat hartuko dira eta hilaren 16tik 31ra artean egindakoak hilabete erditzat. Iraupen luzeko ikastaroetan izena ematea, ordaintzeko aukeratu den bidea edozein izanda ere, ikastaro osorako dela ulertuko da; ondorioz, ordainketa-zati guztiak ordaindu behar dira, ikastarora joan ala ez kontuan izan gabe.

**Ordaindu gabeko erreziboak:** Zatiren bat ordaindu gabe geratzen bada hura kobratu ahal izateko espedienteak hasiko da. Eta, horrekin batera, zorretan dagoen bazkideak bazkide gisa dituen eskubide guztiak galduko ditu, hots, ezingo du ikastaroa egiten jarraitu eta ezingo ditu udalaren kirol instalazioen gainerako zerbitzuak erabili, ordaintzeko dagoen kuota edo kuotak ordaindu arte.

### 3.- Itzulketak - Bajak

**Hilabeteko ikastaroak:** Behin ikastaroa hasita ezin izango da baja eskatu eta dagokion dirua itzuli. Izen-ematearen %100a itzuliko da baja eta itzulketak ikastaroaren hasiera baino lehen eskatzen denean, baldin eta istripuagatik edo gaixotasunagatik izan bada. Horretarako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

**3 hilabeteko ikastaroak:** Ikastaroan izena eman dutenek bi asteko epea izango dute eskatzeko baja edo ordaindutako diru kopurua itzultzeko.

Hala eta guztiz ere, baja edo kuota itzultzeko eskaera bat jasotzen denean eta hutsik geratuko den plaza beste norbaitek betetzeko aukera badago, zuzenenean onartu ahal izango da eskaera, eskaera data zein den kontuan hartu gabe. Eskaera egin duenak ordainduko ditu ikasle berriak ikastaroan matrikula egin duen egunera arteko kuota guztiak.

**Iraupen luzeko ikastaroak:** Jarduera hasi eta bi astea ezin izango da eskatu ez bazarik, ez ordaindutako diru kopuruaren itzulketarik.

Hala eta guztiz ere, ikastaroetan izena eman dutenek, lehen aipatutako epea igaro eta urte bereko abenduaren 31 arte ikastaroan baja eskatu ahal izango dute idatziz, eta hori onetsia edo ezetsia izango da. Jarduera Fisikoa eta Kirol delegatuak erantzuna emango du ebazpenaren bidez, aurkeztutako arrazoiak baloratu eta gero. Data hori pasatuz gero ez da diru itzulketarik egingo.

Goian adierazitakoa hala izanda ere, baja eskaera bat jasotzen denean edo inskripzio kuoten itzulketak jasotzen denean, hutsik geratutako plaza besteren batek betetzeko aukerarik baldin badago, zuzenenean onartu ahal izango da eskatutakoa, eskaeraren data kontuan hartu gabe, eta eskatzaileak ordainduko ditu ordezkoko ikastaroan matrikula egiten duen une zehatzera arteko kuota guztiak.

Udalak eskatzaileari eskatu ahal izango dio bere ustez beharrezkoa den dokumentazio guztia, baja eskatzearen arrazoiak justifikatzeko.

Ikastaro osoa edo zatia indargabetzea ikastaroa antolatu duenaren arrazoiz gertatzen bada, izena emateagatik ordaindutakoa ikastaroa eten denetik gelditzen den denboraren proportzioan itzuliko da

#### 4.- Ikastaroak

##### Espazio erabilera:

- Uretako ikastaroak

Kale banaketa igerileku handian:

Udal ikastaro eskaintza, elkarte eta klub desberdinen eskaintza eta eskola kiroleko eskaintza: guztira, batera, gehienez 4 kale erabiliko dira.

Helduen ikastaroetan (hastapena izan ezik) talde bakoitzak, normalean, bi kale erabiliko ditu saioetan, erabiltzaile libreentzat, beti ere, 4 kale erabilgarri mantenduz.

- Fitness aretoko ikastaroak: ikastaro bakoitzaren ezaugarriak kontun hartuta, eta erabilpen aukeraren arabera programatuko dira.

##### Aldagelak:

Umeekin, aldagelan laguntzera, datozen pertsonak horreatarako adierazita dauden guneetan soilik ibiliko dira. Hauek ezingo dira inola ere bainu gunera (igerilekura, oinutsik erabiltzeko pasilora...) sartu.